





- Erabilera eta jabego publikoko udal instalazio eta ondasunen kontrola.
- Zerbitzu publikoen kontrola.
- Gorpuak luperatzea.
- Igeltseritza lanak.
- Loragintza lanak
- Zentru publikoetan altzarien garraioa.
- Agindutako beste lanak egitea.

Lanaldia Izurtzako Udalak berak ezarriko du, urtero, jardungo duen zerbitzurako, kontuan hartuta, edozelan ere, lanpostuaren beraren izaera eta behar zehatzak.

Laneko ordutegia eta egutegia Izurtzako Udalak ezarriko ditu.

#### **Hirugarrena.— Hautagaien betekizunak**


1. Hautaketa-prozesu honetan parte hartu ahal izateko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

- a) Espainiako edo Europar Batasuneko kide den estaturen bateko herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbideko banaketarik gabeak badira; baita ere bere ondorengoek eta bere ezkontidearenek, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabeak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiagoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura bizi direnak.

- b) Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiro-adina ez izatea.
- c) Titulazio akademikoa: Eskola-ziurtagiria edo baliokidea izatea, edo eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Baliokidetasuna hautagaiak egiaztatu beharko du, Administrazio eskudunak horretarako emandako ziurtagiri bidez. Ildo berean, Espainiako administrazio eskudunaren homologazioak egiaztatu beharko dira atzerrian emandako titulazioei dagokienez.
- d) B1 Gidabaimena izatea.
- e) Lanpostuei dagozkien zereginak edo eginkizunak normaltasunez betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- f) Edozein Herri Administrazioen zerbitzuetatik edota autonomia erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoetatik diziplinazko espediente bidez baztertua ez egotea edota ebazpen judizial bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez edukitzea lanpostu edo kargu publikoetarako, funtzionario kidego edo eskalara sartzeko, edota lan-kontratudun behargin moduan egiten zuen eta baztertua edo desgaitua izan zen antzeko eginkizunak burutzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.
- g) Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko indarreko araudian aurreikusita dauden ezgaitasun edo bateraezintasunaren legezko kausaren batean ez egotea.
- h) Funtzioak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea, osasun-ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatua.

2. Deialdian parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eskatutako betekizun guztiak bete beharko dituzte, eta hautaketa-prozesuak iraun bitartean mantendu.

**Laugarrena.— Eskabideak eta onarpena**

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabideak, non hautagaiek adierazi beharko duten deialdiaren oinarrietan jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela, Alkatetzara igorriko dira, eta behar bezala aurkeztuko dira Izurtzako Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Elizalde, 20. 48213-Izurtza. Bizkaia), oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 20 egun naturaleko epean. Aurkezteko azken eguna ez balitz balioduna, eskabidea dagokion hurrengo egun baliodunean aurkeztu ahal izango da.

Eskabideak eredu ofizialaren arabera beteko dira, Izurtzako Udalaren webgunean ([www.izurtza.eus](http://www.izurtza.eus)) eskuragarri, bai eta Udaletxeko Idazkaritza Sailean ere.

Halaber, eskabideak aurkeztu ahal izango dira Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein tokitan.

Postetxeen bitartez aurkeztutako eskabideak gutun-azal ireki baten barnean egongo dira, postako funtzionarioek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar ditzaten haietan.

Hautagaiek eskarian emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi horren erabilera mugatuko da hautaketa-prozesua eta administrazio honetan aldi baterako kontratazioetarako sortuko den lan-poltsa kudeatzera. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamenduak Datuak babesteko Erreklamendu Orokorra bete beharko dute.

Eskabideetan, ondokoak adierazi behar dira:

- a) Datu pertsonal osoak.
- b) Oposizio-faseko ariketak egiteko erabili nahi den hizkuntza ofiziala: euskara ala gaztelania.
- c) Urritasunak dituzten pertsonen hori agerrarazi beharko dute, bai eta, hala badagokie, hautaketa-probak egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten egokitzapen teknikoak ere.
- d) Hautagaiek deialdiaren oinarrietan banan-banan aipaturiko baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela agerrarazi behar dute eskabideak aurkezteko epea amaitzean.
- e) Alegatutako tituluak, parte hartzeko baldintza moduan.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

- Nortasun Agiriaren edo agiri baliokidearen fotokopia, atzerritarra izanez gero.
- Ehuneko 33ko urritasun-maila edo handiagoa duten pertsonen hala agerrarazi beharko dute, bai eta, hala badagokie, hautaketa-probak gainerako hautagaiei dagokienez berdintasunean egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten egokitzapen teknikoak ere.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Izurtzako Udaleko Alkatetzak onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, hurrengo 15 egun baliodunen barruan.

Ebazpen hori Udaletxeko ediktu/iragarkien taulan, Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Zerrenda horretan, baztertutako hautagaiei dagokienez, baztertuak izateko arrazoiak adieraziko dira, eta 10 laneguneko epea emango zaie bazterketa horren aurka egiteko eta bazterketa eragin duten hutsegiteak konpontzeko edo agiriak aurkezteko (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua arabera). Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, hautagaiak onartu eta baztertzeko ebazpena onetsi duen agintariak ebatzi beharko ditu aurkeztutako erreklamazioak.

Hartara, erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira, automatikoki. Erreklamazioak egonez gero, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez onartu edo gaitzetsiko dira. Zerrenda hori lehengoaren modu berean argitaratuko da.



Behin-behineko zerrendetan bazterturiko pertsonak, zerrenden kontrako erreklamazioa aurkeztu badute epearen barruan, probak egitera aurkez daitezke kautelazko neurri legez, baldin eta egun horretarako planteaturiko erreklamazioa ebatzi ez bada.

Halaber, behin betiko zerrendetan bazterturiko pertsonak probak egitera aurkez daitezke kautelazko neurri legez, betiere bazterketaren kontrako errekurtsio egokia aurkeztu izana egiaztatzen badute eta egun horretarako errekurtsioa ebatzi ez bada.

Behin-behineko zerrendekin batera, oposizio-faseetako lehen ariketen eguna, ordua eta tokia argitaratuko dira, baita Kalifikazio-epaimahaiaren osaera ere (titularrak nahiz ordezkioak). Ondorengo ariketak Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko ditu Kalifikazio-epaimahaiak, interesdunei jakinarazteko.

### **Bosgarrena. — Kalifikazio-epaimahaia**

Hautaketa-organoa kide anitzekoa izango da, eta kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-irizpideen arabera osatuko da; era berean, gizon eta emakumeen arteko parekidetasunari eutsiko zaio.

Kalifikazio-epaimahaia, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera, honela osatuko da:

Mahaiburu bat, Idazkari bat eta 2 Kide izango ditu.

Halaber, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (HAEE) kide batek parte hartuko du.

Kalifikazio-epaimahaiak aholkulari adituena laguntza baliatu ahal izango du bere lanetan, hautaketa-prozesuaren baitako proba guztietan edo batzuetan; adituak beren espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko dira, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ahotsa izango dute, baina botorik ez.

Epaimahaikideek ezingo dute esku hartu, eta Alkatetzari jakinarazi beharko diote, sektore publikoko araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat dagoenean, eta hautagaiek ezetsi ahal izango dituzte, aipatu Legearen 24. artikuluan arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako egoeraren bat egonez gero.


Epaimahaietako titullarrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek euren ordezkioak izango dituzte; ezin izango da kargua eskuordetu eta epaimahaia ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun gutxienez kideen erdiak —titularrak edo ordezkioak— baino gehiago egon ezean.

Epaimahaikide guztiek edukiko dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, azken horrek ez baitu botorik edukiko. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehien-goaren bidez hartuko dira, eta, berdinketa gertatzen bada, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du. Kideren batek huts egiten badu edo gaixo badago eta, oro har, arrazoi justifikaturen bat gertatzen bada, kide anitzeko organoko kide titullarren ordezkioak ariko dira. Epaimahaibururik ez badago, kanpoan badago, gaixo badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, ordezkioak hartuko du bere lekua, eta ordezkio hori ez badago, epaimahaiko kideen artean hierarkia-maila, antzinatea eta adin handiena duenak —hurrenkera horretara—. Idazkaririk ez badago, kanpoan badago edo gaixorik badago, ordezkioak hartuko du bere lekua aldi baterako.

Epaimahaikide guztiek Funtzio Publikoari buruzko Legeak titulazioaren eta espezialitatearen printzipioak beteko dituzte.

Kalifikazio-epaimahaiak ahalmena du sortzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa-oposizioa behar bezala egiteko eta ordena onari eusteko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez.

Epaimahaia osatzen duten titular eta ordezkioen izenak azaltzen dituen zerrenda argitaratuko da, hautaketa-prozesurako onartu eta baztertu diren pertsonen zerrendekin batera, epaimahaiburuak izendatu ostean.



Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Kalifikazio-epaimahaiak Mañariko Udaletxeko Idazkaritza Sailean izango du egoitza.

#### **Seigarrena. — Hautaketa-prozesuaren hasiera eta garapena**

Deialdi bakarrean deituko dira oposizioan parte hartuko dutenak, eta oposiziogileetako bat deitua izan denean edozein ariketatara ez aurkezteak automatikoki ekarriko du ariketa berean parte hartzeko eskubidea galtzea.

Kalifikazio-epaimahaiak noiznahi eskatu ahal izango die hautagaiei behar den moduan nor diren jakitera eman dezaten. Horretarako, hautagaiek NA eraman beharko dute oposizioko ariketa guztietara, edo, bestela, epaimahaiaren iritziz euren nortasuna behar den moduan egiaztatzen duen beste agiriren bat (pasaporte, gidabaimena...).

Epaimahaiak prozeduraren edozein unetan jakiten badu hautagai batek ez dituela betetzen deialdian jasotako betekizunak, baztertu egingo da, interesdunari entzunaldia eskaini ondoren. Egun horretan bertan, horren barri emango zaio hautaketa-prozesua deitu duen agintariari.

Probak hasitakoan, hurrengo iragarkiak Udaletxeko iragarki-taulan eta web gunean argitaratuko dira, eta hurrengo ariketa egiteko eguna eta ordua adieraziko dira gutxienez 48 ordu lehenago. Ariketa bat amaitu eta hurrengo hasi artean, gutxienez 72 orduko tarte egongo da, salbu eta ariketa egin behar duten hautagaiek ados ez daudela adierazten badute.

#### **Zazpigarrena. — Hautaketa-prozedura**

Hautagaiak lehiaketa-oposizio sistemaren bidez hautatuko dira.

##### *Oposizio-fasea*

Hiru ariketa egin beharko dira, guztiak nahitaezkoak eta baztertzailleak:

— Lehenengo ariketa: Ariketa teorikoa lanpostua betetzeko berezko eta ezinbesteko ezagutzak neurtzeko.

Nahitaezkoa eta baztertzaillea izango da hautagai guztientzat. Ariketa hau gehienez 40 punturekin ebaluatuko da, eta gutxienez 20 eskuratu beharko dira gainditzeko.

Proba gai komun en edukian (I. Eranskina) oinarrituko da.

Kalifikazio-epaimahaiak erabakiko du egin beharreko proba-eredua (test-erako galdegia, gai bat edo hainbat garatzea, etab.) eta, hala badagokio, erantzun okerrengatik puntuak deskontatzea.

— Bigarren ariketa: Ariketa praktikoak lanpostua betetzeko berezko eta ezinbesteko trebetasunak ebaluatzeko.

Kalifikazio-epaimahaiaren irizpidearen arabera, Udaletxean egun alguazil lanpostua betetzen dituzten langileen funtzioekin loturiko ariketa praktikoa(k).

Proba honetan, gehienez 50 puntu eskuratu ahal izango dira. Prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 25 puntu lortzen ez dituztenak.

Zehazki, eta Epaimahaiak har dezakeen beste edozein erabaki baztertu gabe, proba praktikoa ondoko alderdien gainekoa izan daiteke:

— Igeltseritza lanak.

— Desbrozadoraren erabilera.

Proba egiteko, Epaimahaiak hautagaien eskura jarriko ditu ariketa egiteko beharrezko osagaiak. Funtsean, balioetsiko dira lanak egiteko orduan erakutsitako trebetasuna, bikaintasuna, ezagutzak eta zuzentasun teknikoa.

Kalifikazio-epaimahaiak, hala badagokio, zehazturiko proben ordena aldatu ahal izango du, bai eta egun berean proba bat baino gehiago egitea erabaki ere.

— Hirugarren ariketa: Euskara-proba.

Euskarazko 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko (1. HE) azterketa izango da, Herri Arduraritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) horretarako emandako jarraibideen arabera,



Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.1. artikuluan ezarritakoa dela bide.

Ariketa honetan, gai edo ez gai izango dira hautagaiak, eta gainditzen ez dutenak prozesutik kanpo geratuko dira.

1. hizkuntza-eskakizunaren jabe izatea egiaztatu ahal izango da euskara-maila egiaztatzen duen edozein titulu edo agiri aurkeztuta, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Markoaren baitako B-1 mailaren edo handiagoaren (B-2, C-1 eta C-2) parekoa.

Euskara-azterketa egitetik salbuetsita egongo dira euskara-maila egiaztatzeko probak baino lehen aurreko paragrafoan aipatu ziurtagiri edo tituluetako bat epaimahaiaren aurrean aurkezten dutenak.

#### *Lehiaketa-fasea*

Fase honetan, oposizio-fasea gainditu duten hautagaiak baino ez dira balioetsiko.

Lehiaketa-fasea ez da izango baztertzaila, eta ezingo da kontuan hartu oposizio-faseko probak gainditzeko.

Lehiaketa-fasea hautagaiak alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduen azterketa eta balorazioa egitea izango da, eta deialdiko berariazko baremoen arabera eurerariko bakoitzari dagozkion puntuak hautagai bakoitzari esleituta egingo da. Ezin izango dira inola ere balioetsi aurkezteko epean behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak. Eskari orriak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte lortutako merezimenduak bakarrik zenbatuko dira.

Mañariko Udalean emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina interesdunek ez dute zertan egiaztatu. Administrazio honek ofizioz hartuko ditu kontuan. Gainerako Herri Administrazioetan egindako zerbitzuen denbora haietako bakoitzak horretarako ezarrita daukan ereduaren egiaztatuko da. Edonola ere, bereizi egin behar dira lan egindako aldiak, zein kidego edo eskalatan, azpieskalatan eta klase edo kategoriatan jardun izan den zehaztuta.

Enpresa pribatuen izandako lan-esperientzia egiaztatzeko, nahitaez aurkeztu beharko da lan-bizitzaren ziurtagiria, baita hautagaiak izan duen lanpostua eta bete dituen eginkizunak egiaztatzen dituzten kontratuen kopia edo enpresa-ziurtagiria ere.

Hauxe da deialdi honetarako merezimenduen baremoa:

— Herri Administrazioan edota enpresa pribatuen antzeko lanetan izandako eskarmentuak: 0,25 puntu lan egindako hilabete osoagatik —egunean 7,5 orduko lanaldia—, gehienez 10 puntura bitarte.

Ondorio horietarako, abenduaren 26ko 70/1978 Legean agertzen direnak hartzen dira herri-administrazioetat, aurretik herri-administrazioan emandako zerbitzua aintzatestea dakartenak.

#### **Zortzigarrena.— Ariketak berrikustea eta kopia eskuratzea**

Epai-mahaiak argitaratuko ditu ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak eta ariketak berrikusteko erreklamazio epea ezarriko du.

Berrikusketak kalifikazioaren arrazoen informazioa ematea izango du helburu, zentzu hertsian, Kalifikazio-epaimahaiak hartutako irizpideekin bat, eta ezin izango da aldatu izapide honetan, akats aritmetikoak edo izatezkoak sumatu ezean.

Berrikuspen-eskaerak idatziz aurkeztuko dira Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2915 Legeak horretarako aurreikusitako edozein tokitan.

Berrikuspen-eskaerak izapidetuko dira horretarako eraturiko eredu ofizialaren arabera; hautagaiak Udalaren webgunean izango dute eskuragarri.

Ariketak berrikusteko lehen paragrafoan ezarritako epeak amaitutakoan, balizko alegazioak ebatzi eta behin betiko zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, guztirako puntuazio-ordenaren arabera. Epe horiek igarotzen badira eta hautaketa-prozesuko hautagaiak



alegazioak aurkezten ez badituzte, behin betikotzat joko da hautaketa-probaren azken emaitzeekin Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean eginiko lehen argitalpena.

Halaber, hautagaiak hautaketa-proban eginiko azterketaren kopia lortzeko eskaera ere idatziz aurkeztu beharko da, arestian aipaturiko legeriarekin bat etorrira, eta azterketak berrikusteko epea amaitu arte baizik ez da onartuko.

#### **Bederatzigarrena. — Kalifikazio-epaimahaiak gaindituen zerrendari buruz eginiko proposamena**

Oposizio-lehiaketaren azken emaitza aipatutako bi faseetan lortutako puntuazioen batura izango da, eta horrek hautagaien lehentasun-hurrenkera zehaztuko du lan-poltsan.

Ariketen kalifikazioa bukatutakoan, Epaimahaiak hautagaien zerrenda argitaratuko du.

Berdinketa egonez gero, ordena ezarriko da bigarren oposizio-proban eskuraturiko puntuazio handienari erreparatuta. Oraindik berdinketa balego, lehenengo proban eskuraturiko puntuazioa hartuko da kontuan. Oraindik berdinketa balego, lehiaketa-fasean eskuraturiko puntuaziora joko da. Oraindik berdinketa balego, zozketa egingo da.

Ariketa bakoitzaren puntuazioak argitara emango dira Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean dagokion iragarkia jarrita.

Dagokion hautaketa-prozesutik sortu diren gaindituen zerrendak baliozkoak izango dira indarreko araudiak aurreikusten dituen kasuak gertatzen direnean aldi baterako langile gisa izendatzeko, eta Udalaren aldi baterako zerbitzuak emateko erabiltzen diren lan-poltsan sartuko dira.

#### **Hamargarrena. — Izendapena, probaldia eta prestakuntza**

Hautaketa-prozesuan aurkeztu eta oposizio-fasea gainditu duten hautagaiak osatuko dute lan-poltsa: horretarako, lehentasun-hurrenkera ezarriko da proba bakoitzean lorturiko azken puntuazioaren arabera, betiere oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lorturiko puntuazioak batutakoan.

Lan-poltsaren helburua izango da Udalaren aldi baterako lan-beharrak betetzeko hautagaiak aukeratzea, aldi baterako lan-kontratazioaren bidez, betiere langile berriak sartu behar badira eta bete beharreko lanpostua deialdi honen xede denaren antzekoa bada.

Egoera hauetako batean egongo dira lan-poltsan sartutako hautagaiak:

— Libre edo lanerako prest.

— Etenda.

Lan-poltsan libre edo lanerako prest ageri diren hautagaiei baino ez zaie deituko.

Baldin eta Udalean beharrak sortzen badira eta lan-poltsaren bidez bete behar badira, eskaera egingo zaio hautagaiari hamar egun naturaleko epean aurkez ditzan deialdiaren oinarrietako baldintzak eta aplikatu beharreko araudian ezarritako gainerakoak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak.

Hautagaiarekin telefono edo telematika bidez harremanetan jartzeko gehienez hiru ahalegin egingo dira, bi eguneko epean.

Deitutako hautagaiak onartu egin beharko du proposamena; ukatuz gero, zioa justifikatu beharko du, idatziz. Hartara, lan-poltsan hasieran zuen lehentasun-ordenari eutsiko dio; bestela, behin betiko baja emango zaio.

Oro har, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri baliokidearen kopia, behar bezala egiaztatua. Agiri baliokidea bada, nortasuna, herritartasuna eta jaioteguna jaso beharko ditu idatziz. Atzerritarra izanez gero, agiriaren bidez egiaztatuta beharko da ezarritako baldintzak betetzen direla.
2. Bete beharreko lanpostura iristeko eskatzen den titulua, haren kopia egiaztatua edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.



3. Lanpostuaren berezko zereginak normaltasunez betetzea eragozten dion gaixotasun edo akats fisikorik ez daukala egiaztatzen duen osasun-ziurtagiria, Udalak erabakitako osasun-zerbitzuek emana.
4. Diziplinazko espediente baten bitartez Herri Administrazioaren baten zerbitzutik baztertuta ez dagoela eta zeregin publikoak betetzeko ezgaiturik ez dagoela azaltzen duen adierazpena.
5. Herri Administrazioaren Zerbitzuko Beharginen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean ezarritako bateraezintasunik ez daukala azaltzen duen adierazpena.
6. Lanposturako eskatutako gainerako berariazko baldintzak dokumentu bidez justifikatzea.

Dokumentuen bidezko egiaztapena jatorrizkoak edo kopia egiaztatuak aurkeztuta egingo da.

Baldin eta epe horretan, eta ezinbestean ez bada, hautagaiak ez baditu agiriak aurkezten edo egiaztatzen bada ez dituela betetzen eskaturiko baldintzak, ezin izango da izendatu eta baliorik gabe geldituko dira haren jarduketa guztiak, eskabidean gezurrezko datuak emateagatik izan litekeen erantzukizuna baztertu barik.

Baldin eta hautagaia baztertu egin bada, Kalifikazio-epaimahaiak proposatu ahal izango du zerrendako hurrengo gainditutakoen zerrendan sartzea, betiere hautaketa-probak gainditu baditu eta hautaketa-probetan lorturiko hurrenkera berean.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztutakoan, aldi baterako lan-kontratua egingo da. Kontratuak hilabeteko probaldia izango du.

Kontratua amaitutakoan, ofizioz lan-poltsan sartuko da berriro pertsona hautatua, hasieran zuen hurrenkerarekin, eta berriz ere noiz deituko zain egongo da.

#### **Hamaikagarrena. — Aktak**

Kalifikazio-epaimahaiko idazkariak epaimahaiaren jardueren gaineko aktak idatziko ditu, eta bertan jasoko ditu, gutxienez, zuzenketa-irizpideak, hautagaien emaitza partzialak eta azken emaitzak, lan-poltsako hautagaien hurrenkera-proposamena eta hautaketa-prozesuko bestelako inguruabar garrantzitsuak.

#### **Hamabigarrena. — Gertakariak**

Kalifikazio-epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa-oposizioa behar bezala egiteko eta ordena onari eusteko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez.

#### **Hamahirugarrena. — Aurkaratzeak**

Deialdiaren, oinarrien eta oinarri horietatik eta epaimahaiaren jardueratik ondoriozta daitezkeen administrazio-egintza guztien aurka egin dezakete interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen indarreko Legean zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.

Mañarian, 2018ko uztailaren 10ean.— Alkate andrea, Eva Muñoz Irasuegui



**I. ERANSKINA****GAI KOMUNAK**

1. Lorezaintza: Kontzeptu orokorrak eta lorezainaren funtzioak. Desbrozadora, be-larra moztekoa eta gainerako gailuak nola erabili.
2. Jakinarazpenen gauzatzea Lege Araudian.
3. Igeltseritzari buruzko oinarrizko kontzeptuak. Eraikuntza materialak. Zerpiatzea eta adreiluen tabikeak egitea.
4. Eraikin eta lokalen margoketari buruzko oinarrizko kontzeptuak. Margotu eta margoak kentzeko tresneria. Ohiko akats eta konponketak.
5. Izurtzako udalerrriaren ezagutza: kokapena, historia, kale izendegia, zerbitzuak, komunikazioak, eraikinak etc.
6. Ekipamentu publiko eta udal lurzoari dagokion garbiketako oinarrizko ezagutzak.

